

ITZIARREKO FESTIBALA | Galderak hautatzeko dinamikaren sistematizazioa

Datu teknikoak

- **Non:** Burugorri Ostatuan, 2023ko uztailaren 8an, larunbata.
- **Partaideak:** 18. Adin ertaineko pertsonak, eta gazteren bat. Nahiz eta gehiengoak ez izan, Itziarreko auzokideak egon dira. Gainerako partaideen artean, UPV/EHU-ko irakasleak eta programan parte hartu duten gonbidatuak egon dira, besteak beste.
- **Talde motorretik:** 7 kide egon gara.
- **Luzapena:** 1 h
- **Hizkuntza:** euskaraz, ez da xuxurlaririk behar izan.

Tailerraren emaitza

Ateratako 2 galderak:

- Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?
- Nola lor daiteke gobernariak, legegileak, herritarrengandik hurbilago dauden erabakiak eta ekintzak aurrera eramatea?

Galdera aldatzeko proposamena:

- Ona da bakarrik gehiengoak erabakitzen duena? → "Gauza baliagarri bakarra al da gehiengoak erabakitzen duena?"

Dinamikaren sistematizazioa

Sarrera

Dinamizatzaileak 8 galderak irakurri ditu banan-banan. Gobernantzaren eta erabaki-hartze partekatuen inguruko galderak direla azaldu du, baita ariketaren helburua: 8 galderetatik 2 galdera hautatzea. Hauexek izan dira hasieran aurkeztutako 8 galderak:

- Aktore mota asko dagonean, zer da Estatua? Zer da aktore publiko bat?
- Ona da bakarrik gehiengoak erabakitzen duena?
- Gizabanakoek, zer da kontrola dezakeguna eta zer ez? Non dago mutur horien arteko oreka osasuntsua?
- Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?

- Existitzen da filtro bat iritzi publikoarengana heltzen dena edo ez dena baldintzatzen duena, eta konfiantza/ konfiantza eza sortzen duena?
- Zein da ados ez egoten hasteko eduki behar dugun segurtasun minimoa?
- Nola pasako gara koherentzia logikatik kohesio logikara? Alegia, nola mugitu proiektu isolatuen logikatik, baterako sorkuntzarako espazioak ahalbidetu eta bakoitza egiten ari garena konektatu eta eraldadaketarako esfortzuak batzera?
- Nola lor daiteke gobernariak, legegileak, herritarrengandik hurbilago dauden erabakiak eta ekintzak aurrera eramatea?

Galdera "konplexuak" direla adierazi dute partaideek, eta gobernantzari buruz ari garenean, ea "zein maila" edo "eskalari buruz" ari garen: tokikoa, aldundikoa, estatala, mundiala... Bestetik, galdera batzuk ulertzeko zailtasunak egon dira, hain zuzen, "Existitzen da filtro bat iritzi publikoarengana heltzen dena edo ez dena baldintzatzen duena, eta konfiantza/ konfiantza eza sortzen duena?" eta "Nola pasako gara koherentzia logikatik kohesio logikara? Alegia, nola mugitu proiektu isolatuen logikatik, baterako sorkuntzarako espazioak ahalbidetu eta bakoitza egiten ari garena konektatu eta eraldadaketarako esfortzuak batzera?" galderekin. Fazilitatzaileak galderak behin

baino gehiagotan azaldu behar izan ditu. Bi galdera hauetatik lehenengoak ("Existitzen da filtro bat iritzi publikoarengana heltzen dena...") eztabaida txiki bat sortu du aurrerago. Talde motorreko kide batek azaldu du galdera hau *fake news* direlakoak kontrolatzeko agenzia baten sorrerarekin lotzen dela, hau da, gezurrezko berrien hedaketa kontrolatzeko "filtro" bat jartzeko proposamenarekin (agenzia bat, adibidez). Partaide bat mesfidati agertu da azalduz filtro hori jada existitzen dela esanez.

4 galdera hautatu

Ostean, partaideek 3-4 minutu izan dituzte gustukoa edo interesekoa duten galdera hautatzeko, galderan bertan kokatuz.

Horrela geratu dira emaitzak:

Galdera	Pertsona kopurua
Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?	5
Nola lor daiteke gobernariak, legegileak, herritarrengandik hurbilago dauden erabakiak eta ekintzak aurrera eramatea?	3
Ona da bakarrik gehiengoak erabakitzen duena?	2
Zein da ados ez egoten hasteko eduki behar dugun segurtasun minimoa?	2
Nola pasako gara koherentzia logikatik kohesio logikara? Alegia, nola mugitu proiektu isolatuen logikatik, baterako sorkuntzarako espazioak ahalbidetu eta bakoitza egiten ari garena konektatu eta eraldadaketarako esfortzuak batzera?	2
Gizabanakoek, zer da kontrola dezakeguna eta zer ez? Non dago mutur horien arteko oreka osasuntsua?	1

Existitzen da filtro bat iritzi publikoarengana heltzen dena edo ez dena baldintzatzen duena, eta konfiantza/ konfiantza eza sortzen duena?	1
Aktore mota asko dagonean, zer da Estatua? Zer da aktore publiko bat?	0

Desenpatea eta hausnarketa laburra

Lehenengo txanda honetan bi galdera atera dira hautatuak, eta hiruk enpatatu dute. Desenpatatzeko, enpatatuta zeuden galderak hautatu dituzten kideei eskatu zaie euren erabakia argudiatzeko. Kohesio-koherentzia galderarekin lotuta, partaide batek adierazi gobernantzarekin baino, galdera egiaren aurrean dauden hainbateko jarrerekin ipini duela harremanetan: egia dena ezagututa ere jarrera desberdinak egon daitezke erantzunei dagokienez. Horregatik indarrak biltzera bideratu behar ditugu gure ahaleginak, horrela ulertzen du kohesioa: "zenbat eta jende gehiago bateratu, orduan eta inpaktu edo eragin handiagoa izango dugu". Beste partaide batek erantzun dio "denok gaudela kohesioaren alde", baina bere kezka gehienbat norbanakoen jarrerarekin lotuta dagoela, alegia, "gazterian identifikatzen duen kritikotasun faltaren" inguruan. Kritikotasun falta horrek gora egin du batez ere pandemia ostean. Partaide honek "Zein da ados ez egoten hasteko eduki behar dugun segurtasun minimoa?" galdera hautatu du, hain zuzen ere uste duelako pandemian, esaterako, hainbat neurri modu akritikoan onartu zirela, eta oso kezkatu agertu da gazteriarekin: "lo dago". Gazte batek erantzun dio: egia da gazte bezala ez dutela gehiegizko autokritikarik egiten askotan, eta gazte asko mugitzen direla ingurukoek egin edo pentsatzen dutenaren arabera. Horregatik aukeratu du galdera hau: "Ona da bakarrik gehiengoak erabakitzen duena?", pentsatzen duelako garrantzitsua dela kritikoki jokatzeko ona den horren inguruan hausnartzeko orduan.

Deliberazio labur honen ostean, hautatua izan ez den galderetako bat bozkatu duten pertsonak bozka errepikatu dute. Emaitzak horrela geratu dira:

Galdera	Pertsona kopurua
Ona da bakarrik gehiengoak erabakitzen duena?	2 boza izatetik → 4 boza izatera

<p>Nola pasako gara koherentzia logikatik kohesio logikara? Alegia, nola mugitu proiektu isolatuen logikatik, baterako sorkuntzarako espazioak ahalbidetu eta bakoitza egiten ari garena konektatu eta eraldadaketarako esfortzuak batzera?</p>	<p>Berdin mantendu da → 2 boza</p>
<p>Zein da ados ez egoten hasteko eduki behar dugun segurtasun minimoa?</p>	<p>2 boza izatetik → 0 boza izatera</p>

“Existitzen da filtro bat iritzi publikoarengana heltzen dena edo ez dena baldintzatzen duena, eta konfiantza/ konfiantza eza sortzen duena?” galdera baztertua izan den arren, partaide batek berriro ere heldu dio hasieran galdera honek pizten dion kezkarri: pentsatzen du azken urteetan eta pandemiaren testuinguruan, gora egin duela “kritika faltak” eta “hitz egiteko askatasun ezak”, “2 urtetan ez da eztabaidarik izan, dena izan da informazio ofiziala”, “sistema eta politikoen artean informazio guztia dominatzen baita”. Partaide batek desadostasuna erakutsi du, azalduz bai eskaini direla bestelako ikuspuntuak eta pandemiaren kudeaketarekiko bestelako bertsioak.

Bigarren txandara pasatu diren galderak

Beraz, emaitzei jarraiki, hauexek hurrengo txandan landu diren galderak:

- Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?
- Nola lor daiteke gobernariak, legegileak, herritarrengandik hurbilago dauden erabakiak eta ekintzak aurrera eramatea?
- Ona da bakarrik gehiengoak erabakitzen duena?
- Nola pasako gara koherentzia logikatik kohesio logikara? Alegia, nola mugitu proiektu isolatuen logikatik, baterako sorkuntzarako espazioak ahalbidetu eta bakoitza egiten ari garena konektatu eta eraldadaketarako esfortzuak batzera?

Txokoetan egindako ariketa: irizpideak aplikatu

Aurreko hausnarketak komunean jarri eta gero, dinamizatzailerak ariketaren hurrengo pausoa azaldu du: ateratako lau galderak lantzea, talde motorrak proposatutako sei irizpidetan oinarrituta. Horrela eginda, galderaren hautaketari konplexutasuna ematen

diogu, eta ikertaldeak joerak identifikatzen ditu, partaideen ustez galderak irizpideekin zein puntura arte betetzen duten jasotzeko.

Horretarako, dinamizatazaileak parte-hartzaileak lau taldetan banatu ditu ausaz. Talde-motorreko kide baten laguntzaz, talde bakoitzak aurretik ateratako galdera bat landu du, koloretako gometxen bidez galderak irizpideekin "asko", "zeozer" edo "ezer ez" betetzen duten baloratzeko.



Baloraziorako erabili diren irizpideak honakoak izan dira:

1. Oro har, galderaren formulazioa egokia eta pertinentea iruditzen zait (adb. argia da eta ez da anbigua, ez ditu "bai" edo "ez" bezalako erantzun sinpleak onartzen, azpi-galderak sortzea errazten du, etab.)
2. Galderak Administrazio Publikoek urgentziaz erantzun beharreko gaiak jasotzen ditu
3. Galdera Gipuzkoako lurraldean aplikagarria da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumenak ditu galdera honek lantzen duen gaien

4. Galderak Gipuzkoako erronkei (sozialak, politikoak, ekonomikoak, ingurumenarekin lotutakoak...) erantzuten die
5. Galderak errenta, genero, hizkuntza, jatorri, etnia, etabarreko desberdintasunak kontutan hartzen ditu
6. Galderak demokraziaren hobekuntzarekin lotutako gaiak jasotzen ditu



Oro har talde guztiek eman dute denbora berdintsua ariketa betetzeko, "Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?" galdera lantzen aritu den taldea izan ezik.

Hurrengo taulak emaitzen sintesia jasotzen du:

Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?						
	Demokraziaren hobekuntza	Desberdintasun sozialak	Gipuzkoako erronkak	GFA-k eskumenak	Urgentziazko gaia	Formulazio egokia
Asko	1	0	1	2	0	3
Zezer	3	0	2	2	2	2
Ezer ez	0	5	2	1	3	0
Nola lor daiteke gobernariak, legegileak, herritarrengandik hurbilago dauden erabakiak eta ekintzak aurrera eramatea?						
	Demokraziaren hobekuntza	Desberdintasun sozialak	Gipuzkoako erronkak	GFA-k eskumenak	Urgentziazko gaia	Formulazio egokia
Asko	4	2	1	3	3	0
Zezer	0	1	3	0	0	3
Ezer ez	0	1	0	1	1	1
Ona da bakarrik gehiengoak erabakitzen duena?						
	Demokraziaren hobekuntza	Desberdintasun sozialak	Gipuzkoako erronkak	GFA-k eskumenak	Urgentziazko gaia	Formulazio egokia

Asko	4	3	2	3	2	4
Zeozar	0	1	0	1	1	1
Ezer ez	0	0	1	0	0	0
Nola pasako gara koherentzia logikatik kohesio logikara? Alegia, nola mugitu proiektu isolatuen logikatik, baterako sorkuntzarako espazioak ahalbidetu eta bakoitza egiten ari garena konektatu eta eraldadaketarako esfortzuak batzera?						
	Demokraziaren hobekuntza	Desberdintasun sozialak	Gipuzkoako erronkak	GFA-k eskumenak	Urgentziazko gaia	Formulazio egokia
Asko	3	0	0	0	0	2
Zeozar	0	1	0	1	1	0
Ezer ez	0	0	0	0	1	0

Lehenengo galderak ("Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?") formulazioan jaso ditu puntuazio altuenak, eta jarraitu dio Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumen "asko" dituela baieztatzen duen irizpidea. Kasu honetan, puntuazioa berdina izan da "zeozar" adierazi dutenekiko. Aldiz, galdera hau landu duten partaide guztiak ados egon dira galdera honek ez dituela desberdintasun sozialak "ezer ez" aintzat hartzen, eta urgentziazko gaia ere ez dela baloratu dute erdiak baino gehiagok. Gobernariak eta legegileak herritarrengandik hurbilago dauden erabakiak eta ekintzak aurrera eramateari buruz galdetzen duenak, puntuazio altuena jaso du demokraziaren hobekuntzaren irizpidean, eta hari jarraitu diote galdera Foru Aldundiak dituen eskumenen ikuspuntutik eta gaiaren urgentziaren ikuspuntutik baloratzen duten irizpideak. Gehiengoak erabakitzen duena ona den galdetzeak irizpide guztiekin "asko" betetzen du, orden honetan: demokraziaren hobekuntzarekin, formulazio egokiarekin, desberdintasun sozialak aintzat hartzearekin, Foru Aldundiak eskumenak izatearekin, Gipuzkoako erronkak aintzat hartzeagatik eta gaiaren urgentziazko izaeragatik. Bukatzeko, koherentziazko logikatik kohesio logikarako trantsizioa lantzen duen galdera izan da balorazio gutxien jaso dituenak. Honek erakusten du galdera honek ez duela oso ondo funtzionatu irizpideen ariketan aplikatzeko, edo, zuzenean, galdera ez dela ondo ulertu.

2 galdera hautatu

Txoko guztiek ariketa bukatuta, gidariak berriro ere talde handian jartzera gonbidatu ditu partaideak. Banaka landutako galderak lurrera eraman ditugu berriro ere, eta parte-hartzaileei eskatu diegu aukeratzeko zein den prozesuaren hurrengo fasean erantzun behar den galdera. Dinamizatzailerik berriro ere azaldu du ariketaren zergatia: alde batetik, prozesu luze baten urrats bat dela, eta, bestetik, lehenengo ariketa intuiziotik edo azaleko kezketatik egin dugun arren, tarteko pauso honetan pixkat gehiago sakondu dugula hausnarketan.

Hasieran egin bezala, partaide bakoitzak galdera bana aukeratu du, galderan bertan kokatuz. Emaitzak hauek izan dira:

Galdera	Pertsona kopurua
----------------	-------------------------

Nola lor daiteke gobernariak, legegileak, herritarrengandik hurbilago dauden erabakiak eta ekintzak aurrera eramatea?	8 pertsona
Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?	6 pertsona
Ona da bakarrik gehiengoak erabakitzen duena?	2 pertsona
Nola pasako gara koherentzia logikatik kohesio logikara? Alegia, nola mugitu proiektu isolatuen logikatik, baterako sorkuntzarako espazioak ahalbidetu eta bakoitza egiten ari garena konektatu eta eraldadaketarako esfortzuak batzera?	2 pertsona

Dinamikarako programatuta genuen ordua bukatzeaz zegoen, eta horregatik aukeraketa honen ostean ez da eztabaidarako tarterik eman. Hurrengo fasera igaroko diren bi galderekin itxi dugu tailerra:

- Nola lor daiteke gobernariak, legegileak, herritarrengandik hurbilago dauden erabakiak eta ekintzak aurrera eramatea?
- Komunitatean parte hartzeko, zer kendu behar diogu gure bizimoduari, benetan komunitatean ekarpenak egiteko? Denbora irabazteko?

Ebaluazio fitxak


Bukatzeko, partaideei ebaluazio fitxa labur batzuk pasatu dizkiegu, euren helbide elektronikoa eta dinamika zer iruditu zaien galdetzeko. Ebaluazio fitxen emaitzak dokumentu honen eranskinetan daude ikusgai.

ERANSKINA. EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Itziarren Gi2030 Festibala ospatu ostean, ikerlariok jakin mina dugu zer nolako bizipena izan duten partehartzaileek, eta saioa bera nola funtzionatu duen. Horretarako, galderen dinamikaren amaieran pasatako inkestak ebaluaketa azkar bat egitea ahalbidentzu du. Homabost pertsonen inkesta osatuta jaso ostean, esan dezakegu gehiengo oso gustora sentitu dela. Gutxi batzuk ezeroso eta ia inor urduri sentitu da.


Sentimendu nabarmenei so eginik, galderen dinamikan nagusitu den giroa lasaia eta errespetuzkoa izan da. Hona hemen dinamikaren ebaluazio emaitzak irudikatzen dituen grafikoa:

Nola sentitu zara?




Dinamikaren antolakuntzari dagokiona oso ondo antolatuta izan dela iruditu zaie parte-hartzaileei. Bat ere kaotikoa eta zentzugabea izanik. Bestalde, gehiengoari argia eta ulergarria iruditu zaio saioa. Hurrengo grafikoan argiago irudikatuz:

Zer iruditu zaizu dinamika?



Azkenik, partehartzaileen bizipenatik zer izan duten atsegina edo ezatsegina jakiteko, lau aldagai bereiztu ditugu: dinamikaren *gaia*, *antolakuntza*, *tokia eta jendea*. Gaia gustokoa izan den arren, nabarmenki dinamika honetan partehartzaileei gehien gustatu zaiena tokia eta jendea izan da. Antolakuntzari dagokiona, aurreko galderan oso ongi altu bat jaso duen arren, oraingo atalean beste aldagaiekin alderatuta ez du izan hainbesteko arrakasta.

Asko gustatu zait...



Bide batez, gutxien gustatutakoa galdetu dugunean hiru pertsonak hamabostetik gaia markatu dute. Kontuan izatekoa da, behar bada dinamikaren gaia ez delako izan guztientzat ulergarria maila berdinean eta horrek ezatsegintasuna areagotu dezake.

Hiru iradokizun jaso ditugu:

- Galdera birformulaketa: "***Gauza baliagarri bakarra al da gehiengoak erabakitzen duena?***"
- Zer den gehien edo gutxien gustatu zaionari erantzuna: "***Testuingurua falta zait baloratzeko***"
- Zer den gutxien gustatu zaiona: "***Itziartar gutxi etorri izana.***"